

Linda Chapman & Lee Weatherly

Sophie  
eta  
Baso iluna

Iratxoen  
erregea



desclée

|                          |         |
|--------------------------|---------|
| 1 Iluntastunean gordea   | 9       |
| 2 Anthony gogaikarri     | 21      |
| 3 Koaderno Iluna         | 36      |
| 4 Atea zabaltzeko giltza | 47      |
| 5 Harrapatuta            | 63      |
| 6 Misio sekretu bat      | 77      |
| 7 Kontuz!                | 93      |
| 8 Eguna ongi bukatzeko   | 106     |
| <br>KOADERNO ILUNA       | <br>125 |



## Iluntasunean gordea

Sophie Smith lorategiko txabola-  
ren gainean makurtu zen. Kopetako  
ile hori ugaria begien aurretik  
kendu, eta hausnarrean hasi zen  
egin beharreko oztopo-lasterketari  
buruz.

—Ur-tutua jaitsi, lore ilararen gai-  
netik jauzi egin, langa zeharkatu,



hesiaren gainetik salto egin eta atzera txabolara  
–xuxurlatu zuen. Errazagorik!

Bere lagunik onena, Sam, belarretan zegoen  
kronometro bat eskuan.

—Beraz, giltzarekin lasterren itzultzen dena  
izanen da irabazlea, ezta? –galdetu zuen Samek.  
Haizeak ile gorri puntazorrotza harrotzen zion.  
Sophiek irribarre egin zuen.

—Drakulak lapurtutako giltza esan nahi duzu,  
ezta? –zuzendu zion.

Zenbait ordu lehenago, ezkutaketan ari zirela,  
Samek eta Sophiek egurrezko kaxa bat aurkitu  
zuten aitonaren armairuan. Kaxaren barruan  
burdinazko giltza handi bat zegoen: grabatu  
bitxi eta ederrak zituen, eta erdian zulotxo bat.  
Sophiek sekula ikusi gabea zuen giltza hori,  
baina jakin-mina piztu zion, eta berehala asmatu  
zuten hura erabiltzeko joko bat. Aitona etxeratu  
aurretik utziko zuen bere lekuan.



Ordutik, goiz osoa eman zuten Samek eta biek itxurak egiten, Drakularen gaztelutik hartu beharreko giltza bat zelakoan. Ederki pasatu zuten, eta gero, bazkalondoan, oztopo-lasterketa kronometratu bat prestatu zuten lorategian.

Eskolan, bere gelako neska batzuk maitagarri jolasetan aritzen ziren eta beste batzuek mutilei buruz hizketan irritxoak egiten zituzten, baina Sophiek lasterketak, patinetea eta taekwondoa gustuko zituen gehien. Praka bakeroak eta kamisetak janzten zituen beti, eta gerrirainoko ile horia zuen arren, ez zuen xingolarik edo lazorik jartzen. Handitzean, filmetako eszena arriskutsuak egiten dituen ordezkoa izan nahi zuen.

Lorategiari begira zegoen, begi berdeak estu-estu, prest. Lasterrena izan nahi zuen, bai horixe!



—Denbora hartuko duzu, Sam?

—Bai! —kronometroaren gainean jarri zuen Samek hatza—. Zure lekura... prest... ZOAZ! —Sophiek ur-tutuari heldu zion eta beheraino irristatu zen ahalik eta azkarren. Kirol-oinetakoek lurra zapaldu bezain laster korrika zegoen. Belardian korrika bizian hasi zen, motots luzea gora eta behera mugitzen zitzaiola.

Lore ilararen gainetik egin zuen salto eta langaraino joan zen lasterka. Goraino eskalatu eta mutur batetik bestera egin zuen zintzilik, gorputza aldeetara kulunkatuz. Beste muturrera iristean, zalantza txiki bat egin zuen, eskailera erabili edo ez. Azkenean, ez zuela merezi erabaki eta salto egin zuen; airean zegoela, beldur-izpi bat izan zuen. Lurrean oreka lortu bezain laster korrika hasi zen berriz.



Zirrarak gorputza zeharkatu zion lorategia-  
ren bukaerara iritsi eta hesiaren gainetik jauzi  
egin zuenean.

Hesiaren bestaldean basoa zegoen: Baso  
Iluna izeneko leku itzaltsu eta itxia, argia sartzen  
uzten ez zuten zuhaitz garaiek estalia.